Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko otsailaren 26a, astelehena — 40 — Lunes, a 26 de febrero de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA

*Iragarkia*

2023ko apirilaren 21ean eta 2023ko azaroaren 29an Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoko Administrazio Kontseiluak erabaki hauek hartu zituen:

ERABAKIAK

*Lehena.* Onartzea Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoko «Eszenatokiko Arduradun» izateko bi (2) lanpostu txanda irekian betetzeko deialdia, sarbide orokorraren modalitatean.

Lanpostu horiek 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartu ziren (2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 17. xedapen gehigarriko birjarpen-tasa).

Halaber, Administrazio Kontseiluak 2023ko apirilaren 21ean onetsitako oinarri orokorrekin batera hautapen prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea.

*Bigarrena.* Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2023ko apirilaren 21ean onartutako «Eszenatokiko Arduradunaren» bi (2) lanpostu betetzeko deialdia handitzea, 2023ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartutako «Eszenatokiko Arduradunaren» lanpostu bat (1) gehituta; hortaz, guztira 3 izango dira «Eszenatokiko Arduradunaren» lanpostuak, txanda librean eta sarbide orokorreko modalitatean bete beharrekoak. Hiru (3) lanpostuek euskara-maila (B2) dute eta derrigortasun-data igarota dituzte.

*Hirugarrena.* Deialdia eta hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifiko osoak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Donostia, 2024ko otsailaren 16a.—Rebeka Gallastegi Etxezarreta, Administrazio eta Baliabideen Kudeaketa Sailaren zuzendari teknikoa. (1193)

*Donostia Kulturako eszenatokio arduradun lanpostuan langile laboral finko bezala kontratatzeko hautapen prozesuaren oinarri espezifikoak.*

Berariazko oinarri hauek Donostia Kultura Enpresa Entitate Publikoan lan-kontratudun finko gisa sartzeko hautapen prozesuen oinarri orokorretan xedatutakoa osatzen dute. Oinarri orokor horiek 2023/04/21eko Administrazio Kontseiluak onartu zituen.

Deitutako lanpostua 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzakoa da, Administrazio Kontseiluak 2022/11/16an hartutako erabakiaren bidez onartutakoa eta 2022/11/28ko 225. zenbakiko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutakoa, geroago 2022/12/28ko 245. zenbakiko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako Gerentziaren Ebazpenaren bidez zabaldua.

Proposatutako izangaien azken kalifikazioak argitaratu aurretik sortzen diren lanpostu hutsen kopuruarekin handitu ahal izango da deitutako lanpostuen kopurua. Kasu horretan, ez da nahitaezkoa izango eskabideak aurkezteko beste epe bat irekitzea.

## ENTIDAD PÚBLICA EMPRESARIAL DONOSTIA KULTURA

*Anuncio*

El Consejo de Administración de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura, con fecha 21 de abril de 2023 y con fecha 29 de noviembre de 2023 adoptó los siguientes acuerdos:

ACUERDOS

*Primero.* Aprobar la convocatoria para la provisión por turno libre de dos (2) puestos de trabajo de «Encargado de Escenarios» de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura por la modalidad de acceso general.

Dichos puestos fueron incluidos en la Oferta de Empleo Público del año 2022 (tasa de reposición de la Disposición Adicional 17.ª de la Ley 22/2021 de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2022).

Así mismo, aprobar las Bases Específicas que, junto con las Bases Generales aprobadas por el Consejo de Administración celebrado el 21 de abril de 2023 regularán el proceso selectivo.

*Segundo.* Ampliar la convocatoria de dos (2) puestos de trabajo de «Encargado/a de Escenario» aprobada por El Consejo de Administración de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura, con fecha 21 de abril de 2023, con la dotación adicional de un (1) Puesto de trabajo de «Encargado/a de Escenario» incluida en la Oferta de Empleo Público del año 2023; siendo en total 3 los puestos de trabajo de «Encargado/a de Escenario» a cubrir por turno libre y la modalidad de acceso general. Los tres (3) puestos de trabajo tienen asignado nivel de euskera (B2) y fecha de preceptividad vencida.

*Tercero.* Publicar la convocatoria y las Bases Específicas íntegras que regularán el proceso selectivo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 16 de febrero de 2024.—La directora técnica del Área de Administración y Gestión de Recursos, Rebeka Gallastegi Etxezarreta. (1193)

*Bases específicas del proceso selectivo para la contratación, como personal laboral fijo en el puesto encargado/a de escenario de Donostia Kultura.*

Las presentes Bases Específicas completan lo dispuesto en las bases generales de los procesos selectivos para el ingreso como personal laboral fijo de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura. Estas bases generales fueron aprobadas por el Consejo de Administración de 21/04/2023.

El puesto convocado pertenece a la Oferta de Empleo Público de 2022, aprobadas mediante acuerdo del Consejo de Administración de 16/11/2022 y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 225 de 28/11/2022, ampliada posteriormente mediante Resolución de la Gerencia publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 245 de 28/12/2022.

El número de puestos convocados podrá incrementarse con el de las vacantes que se produzcan con anterioridad a la publicación de las calificaciones finales de las personas aspirantes propuestas. En tal caso, no será preceptiva la apertura de un nuevo

EK\CV GAO-I-2024-01193

Lanpostuen gehikuntza hori, nolanahi ere, langile berriak sartzea mugatzeari buruz indarrean dagoen legeria betetzearen baldintzapean egongo da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta www.donostiakultura.eus webgunean argitaratuko da.

*1. Deialdiaren lanpostuen ezaugarriak.*

— Lanpostuaren izena: Eszenatokiko Arduraduna.

— Deitutako postuak, txandak eta modalitateak: Txanda librea-orokorra: Bi (3) lanpostu.

— Hautaketa sistema: Oposizio-lehiaketa.

— Sailkapen Azpitaldea: C1

— Funtzioak: Funtzioak I eranskinean adierazitakoak dira.

— Ordainsariak: Destino maila: 17. Lanpostuaren ordainsaria: 18,579,17 €* + hala badagokio, ordainsari osagarria lantokiaren arabera.

*Lanaldi osoari dagokion urteko ordainsaria, 2023/01/01eko dataz.

Lan-baldintzak Donostia Kulturako langileentzat ezarritakoak izango dira.

Disponibilitatea eta dedikazio berezia, ordutegi-nekagarritasuna eta gaueko eta jaiegunetako lana lantokiaren arabera ezarri dira.

*2. Betebehar espezifikoak.*

Oposizio-lehiaketan onartuak izateko eta parte hartzeko, ondore zerrendatzen diren baldintza espezifikoak bete behar dituzte hautagaiek, oinarri orokorren 3.1. oinarrian zehaztuta dauden baldintza orokorrez gain:

2.1. Sartzeko eskatzen den titulazioa.

Batxillergo titulua edo Teknikari-titulua edo titulazio baliokide edo homologatuak.

2.2. Euskara Maila / Hizkuntza eskakizuna.

Europako Marko bateratuko B2 maila /HE 2.

2.3. Bestelako betebeharrak.

Batez.

*3. Oposizio-fasea.*

Oposizio fasea ariketa hauek osatzen dute eta gehienez ere 70 puntu lortu ahal izango dira.

3.1. Lehenengo ariketa.

Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Gehienez 18 punturekin kalifikatuko da, eta gutxienez 9 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Aukera anitzeko galdera sorta bati idatziz erantzun beharko zaio. Galdera horietatik bakarra izango da baliozkoa, eta gai-zerrendan jasotako gaiei buruzkoa izango da. Gai-zerrenda oinarri hauen II. eranskinean adierazitakoa da.

Atal honetako puntuazioa oinarri orokorren 8.1.2. oinarrian ezarritakoaren arabera aterako da.

Puntuazioa galdera-kopuruaren eta adierazitako formularen arabera kalkulatu ondoren, emaitza atal honetako gehieneko puntuetara estrapolatuko da.

3.2. Bigarren ariketa.

Derrigorrezkoa eta baztertzaile izaeraduna.

Bi ataletan banatuta egongo da:

— 1) Atala.

Deitutako lanpostuaren funtzioekin lotutako ariketa idatzi praktiko edo teoriko-praktiko bat egin beharko da.

Gehienez 18 puntu lortu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxienez 9 puntu lortu beharko dira.

plazo de presentación de solicitudes. Dicho incremento de puestos queda condicionado, en todo caso, al cumplimiento de la legislación vigente sobre la limitación de incorporación de nuevo personal y se hará pública en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web www.donostiakultura.eus.

*1. Características de los puestos convocados.*

— Denominación: Encargado/a de escenario.

— Puestos convocados, turnos y modalidades: Turno Libre-general: Dos (3) puestos.

— Sistema selectivo: Concurso-oposición.

— Subgrupo de clasificación: C1

— Funciones: Las funciones son las indicadas en el anexo I.

— Retribuciones: Nivel destino: 17. Retribución puesto: 18.579,17 €* + en su caso, retribución complementaria en función del destino del puesto.

*Retribución anual referida a jornada completa a fecha 01/01/2023.

Las condiciones de trabajo serán las establecidas para el personal empleado de Donostia Kultura.

La disponibilidad y dedicación especial y la penosidad horaria y el trabajo en horas nocturnas y festivas se establece en función del destino del puesto de trabajo.

*2. Requisitos específicos.*

Para la admisión y participación en el concurso oposición, las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos específicos, además de los requisitos generales establecidos en la base 3.1. de las bases generales.

2.1. Titulación exigida para el acceso.

Título de Bachiller o Título de Técnico/a o titulaciones equivalentes u homologadas.

2.2. Nivel de euskera / Perfil lingüístico.

Nivel B2 del Marco Común Europeo / PL2.

2.3. Otros requisitos.

Ninguno.

*3. Fase de oposición.*

En la fase de oposición se podrá obtener como máximo 70 puntos y constará de los siguientes ejercicios:

3.1. Primer ejercicio.

De carácter obligatorio y eliminatorio.

Se calificará con un máximo de 18 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 9 para superarlo.

Consistirá en contestar por escrito un cuestionario de preguntas de respuesta alternativa, de las que solo una será válida, referido a las materias que se recogen en el temario de la convocatoria (anexo II de las presentes bases).

La puntuación de este ejercicio se obtendrá de la forma establecida en la base 8.1.2. de las bases generales.

Una vez calculada la puntuación en base al número de preguntas y la formula indicada, se extrapolará el resultado a los puntos máximos de este apartado.

3.2. Segundo ejercicio.

De carácter obligatorio y eliminatorio.

Estará dividido en dos apartados:

— Apartado 1).

Consistirá en la realización de un ejercicio escrito de carácter práctico o teórico-práctico relacionado con las funciones del puesto convocado.

Se calificará con un máximo de 18 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 9 para superarlo.

EK\CV GAO-I-2024-01193

— 2) Atala.

Deitutako lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen proba praktiko bat egin beharko da.

Gehienez 34 puntu lortu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxienez 17 puntu lortu beharko dira.

Epaimahai Kalifikatzaileak nahi izanez gero, ariketa bat baino gehiago egun berean egitea erabaki dezake eta ariketen hurrenkera aldatzeko eskua ere badu.

3.3. Hirugarren ariketa.

Derrigorrezkoa eta baztertzaile izaeraduna.

Gaitasunak ebaluatzeko probak:

Proba bat edo gehiago egingo dira balioesteko izangaiek lanpostuaren ezaugarrietarako egokitasuna eta gaitasun profesionala.

Zehazki, honako gai hauei buruzko gaitasunak ebaluatuko dira:

— Erantzukizunak bere gain hartzea eta beharrei erantzutea.

— Talde-koordinazioa: pertsonak zuzentzeko, inplikatzeko eta motibatzeko gaitasuna, talde-giro ona sortuz eta mantenduz.

— Norberaren eta taldearen lana antolatzea; eskariak jasotzea, irizpideak eta aginduak behar bezala transmititzea.

— Talde-lana: pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna, baliabideak, ezagutzak, esperientziak eta helburu komunak partekatzea.

— Eskura dauden baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak eraginkortasunez administra-tzeko gaitasuna.

— Eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren ezagutza, tresna eta informazio berriak eskuratzeko eta aplikatzeko gaitasuna.

— Erakundeko kide izatera eta erakundean integratzera bideratutako jarrera, haren balioak, eginkizuna eta ikuspegia bere gain hartuz, eta helburu komunekin bat etorriz.

Ondorio hauetarako, Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du zer motatako proba edo probak egingo diren (elkarrizketak edo bestelako probak) eta proba eguna baino lehen argitaratuko da izangaiei jakinarazteko.

Elkarrizketa edo konpetentziak aztertzen dituen beste probaren bat tekniko espezializatuek egingo dute eta «Gai/Ez Gai» kalifikazioarekin ebaluatuko da.

«Gai» kalifikazioa lortu beharko da hautaketa prozesua gainditzeko.

Emaitza argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute ariketa-proba horri buruzko erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzailearen aurrean.

*4. Lehiaketa-fasea.*

Fase honetan gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira, eta honako alderdi hauek baloratuko dira:

4.1. Lan-eskarmentua. Gehienez 25 puntu.

a) Deialdiaren xede den lanpostuan edo baliokidean sektore publikoko erakundeetan egindako zerbitzuak. 0,5 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko eta gehienez 25 puntu lortu ahal izango dira.

Lanpostu berdina edo baliokidea izango da azpitalde edo lanbide-kategoria bereko lanpostua bada eta eginkizunen % 90 gutxienez bat badatoz deitutako lanpostuarekin.

Ez da antzekotasun-portzentajerik aplikatuko atal hau baloratzeko, hau da, azpitalde edo lanbide-kategoria bereko lanpostuak, betetzen duten lanpostuaren eginkizunen % 90 baino gutxiago badute, b) atalean baloratuko dira.

— Apartado 2).

Consistirá en la realización de una prueba práctica relacionada con las funciones del puesto convocado.

Se calificará con un máximo de 34 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 17 para superarlo.

El Tribunal Calificador se reserva la facultad de realizar varios ejercicios el mismo día, así como de cambiar el orden de los mismos.

3.3. Tercer ejercicio.

De carácter obligatorio y eliminatorio.

Pruebas de evaluación de competencias:

Consistirá en la realización de una o varias pruebas para evaluar a los/as aspirantes en las competencias de profesionalidad e idoneidad personal necesarias para el desempeño del puesto.

En concreto, se evaluarán las competencias respecto a:

— Asunción de responsabilidades y capacidad respuesta a las necesidades.

— Coordinación de equipo: capacidad para dirigir, involucrar, motivar a las personas, creando y manteniendo un buen clima de equipo.

— Organización del trabajo propio y de equipo; recibir demandas, transmitir adecuadamente criterios y órdenes.

— Trabajo en equipo: capacidad para la relación interpersonal, compartir recursos, conocimientos, experiencias, objetivos comunes.

— Capacidad de administrar con eficacia los recursos materiales, económicos y humanos disponibles.

— Capacidad de adquirir y aplicar nuevos conocimientos, herramientas e información necesarios para el desempeño de sus funciones.

— Actitud orientada la pertenencia e integración en la organización, asumiendo sus valores, misión y visión, adquiriendo compromiso con los objetivos comunes.

A estos efectos, el Tribunal Calificador determinará el tipo de prueba o pruebas a realizar (entrevistas u otras pruebas), lo que se publicará con carácter previo al día de su realización para conocimiento de los/as aspirantes.

La entrevista o el otro tipo de prueba de competencia será realizada por personal técnico especializado y será evaluada con la calificación de «Apto-a/No Apto-a».

Será necesario obtener la calificación de «Apto-a» para superar el proceso selectivo.

A partir del día siguiente a la publicación del resultado las personas aspirantes dispondrán de un plazo de 10 días hábiles para formular reclamaciones relativas a dicha prueba ejercicio ante el Tribunal Calificador.

*4. Fase de concurso.*

En esta fase se podrá obtener como máximo 30 puntos y se valorarán los siguientes aspectos:

4.1. Experiencia profesional. Máximo 25 puntos.

a) Servicios prestados en entidades del sector público en el puesto objeto de la convocatoria o equivalente. A razón de 0,5 puntos/mes trabajado con un máximo de 25 puntos.

Se entenderá por puesto igual o equivalente cuando se trate de un puesto del mismo subgrupo o categoría profesional y al menos el 90 % de las funciones sean coincidentes con las del puesto convocado.

No se aplicarán porcentajes de similitud para la valoración de este apartado, es decir, los puestos del mismo subgrupo o categoría profesional con menos del 90 % de las funciones coincidentes con las del puesto convocado serán valorados en el apartado b).

EK\CV GAO-I-2024-01193

b) Sektore publikoko erakundeetan egindako zerbitzuak, deitutako lanpostuaren sailkapen edo kategoria profesional talde bereko beste lanpostu batzuetan, espazio eszenikoetan funtzio teknikoekin. Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,2 puntu, antzekotasun-mailaren arabera; gehienez 12 puntu.

4.2. Prestakuntza osagarriak eta hizkuntzak. Gehienez 5 puntu.

A) Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza. Gehienez puntu 1.

Taula honen arabera baloratuko da:

— Master edo baliokidea: 1 puntu.

Prestakuntza ikastaroak:

— 10 ordu arte: 0,25 puntu.

— 11-19 ordu: 0,30 puntu.

— 20-49 ordu: 0,50 puntu.

— 50-99 ordu: 0,75.

— 100 ordu edo gehiago: puntu 1.

B) Hizkuntzak. Gehienez 4 puntu.

Horrela baloratuko dira frantsesa eta ingelesa:

— Frantses A2 maila: 0,5 puntu.

— B1 maila: 1 puntu/hizkuntza.

— B2 maila: 1,5 puntu/hizkuntza.

— C1 maila edo gehiago: 2 puntu/hizkuntza.

*5. Euskara.*

Lanpostu honek ezarrita duen euskara maila nahitaezkoa da, beraz, lanpostuan sartzeko ezinbestekoa da.

Oinarri orokorren bederatzigarren oinarrian adierazitako moduan egiaztatuko da.

Oinarri horretan xedatutakoari jarraituko zaio, euskara proba egiteko aukerari eta egiaztatzeko epeari dagokienez.

*6. Emakumeei lehentasunezko klausula aplikatzea (oinarri orokorren 10.1.1. oinarria).*

Azken kalifikazioan berdinketa egonez gero, emakumeei lehentasuna emateko klausula aplikatuko da.

*7. Lan-poltsa.*

Oposizio-fasea gainditzen duten izangaiek osatuko dute lanpoltsa, lehiaketa- eta oposizio-faseetako puntuazioen batura aplikatzearen ondoriozko ordenan.

Lan poltsa osatuko duten guztiek, zerbitzura sartu aurretik, «gai» kalifikazioa hartu behar dute egingo zaien mediku azterketan.

Kontratuak beteko den lanpostuak betetzeko unean dituen betebeharrak betetzen dituzten hautagaiekin sinatuko dira soilik.

Horrela, lan-poltsako kide izanik, lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez dutenek ez dute lan-eskaintzarik jasoko, hori egiaztatzen ez duten bitartean.

I ERANSKINA

LANPOSTUAREN FUNTZIOAK

— Luminotekniako tresneria eta osagaiak eta soinu aparatuak eta iturriak instalatzeko eta konektatzeko lanak antolatzea, gainbegiratzea eta egitea, emandako plano eta diseinuetan oinarrituta, bai barrualdean eta bai kanpoaldean.

b) Servicios prestados en entidades del sector público en otros puestos del mismo grupo de clasificación o categoría profesional a la del puesto convocado y con funciones técnicas en espacios escénicos. A razón de 0,2 puntos/mes trabajado, en función del grado de similitud, con un máximo de 12 puntos.

4.2. Formación complementaria e idiomas. Máximo 5 puntos.

A) Formación en Igualdad de hombres y mujeres. Máximo 1 punto.

Se valorará en los siguientes términos:

— Máster o equivalente: 1 puntos.

Cursos de formación, por cada curso de:

— Hasta 10 horas: 0,25 puntos.

— Entre 11 y 19 horas: 0,30 puntos.

— Entre 20 y 49 horas: 0,50 punto.

— Entre 50 y 99 horas: 0,75.

— 100 horas o más: 1 punto.

B) Idiomas. Máximo 4 puntos.

Se valorará el conocimiento de los idiomas inglés y francés, de acuerdo con el siguiente baremo:

— Nivel A2 de francés: 0,5 puntos.

— Nivel B1: 1 puntos/idioma.

— Nivel B2: 1,5 puntos/idioma.

— Nivel C1: o superior 2 puntos/idioma.

*5. Euskera.*

El nivel de euskera que tiene asignado este puesto de trabajo es preceptivo constituyendo, por tanto, exigencia obligatoria para el acceso al puesto.

Se acreditará de la forma establecida en la base novena de las bases generales.

Se estará a lo que dispone dicha base, respecto a la posibilidad de realizar la prueba de euskera y el plazo para la acreditación.

*6. Aplicabilidad de la cláusula de prioridad a las mujeres (base 10.1.1 de las bases generales).*

En caso de empate en la calificación final, será de aplicación la cláusula de prioridad a las mujeres.

*7. Bolsa de trabajo.*

Integrarán la bolsa de trabajo resultante las personas aspirantes que aprueben la fase de oposición en el orden resultante de aplicar la suma de puntuaciones de las fases de concurso y oposición.

Todas las personas integrantes de la Bolsa de trabajo, con carácter previo a la incorporación al servicio, deberán obtener la calificación de apto/a en el reconocimiento médico que se les realizará.

Solo se formalizarán contrataciones con aquellas personas que cumplan los requisitos establecidos para el puesto ofertado en el momento de la contratación.

Así, las personas que formen parte de la bolsa y no tengan acreditado el perfil lingüístico que es requisito del puesto, no recibirán ofertas de trabajo hasta que lo acrediten.

ANEXO I

FUNCIONES DEL PUESTO

— Organizar, supervisar y realizar la instalación y conexionado de los equipos y componentes luminotécnicos y los aparatos y fuentes de sonido, en base a los planos y diseños facilitados, tanto en espacios de interior como de exterior.

EK\CV GAO-I-2024-01193

— Emanaldiak dirauen bitartean argiak eta soinua kontrolatzeko elementuak eta kontsolak zaintzea eta manipulatzea. Kultur etxeetan, proiekzio lanak egitea, bai barrualdean eta bai kanpoaldean.

— Dekoratuak dagozkien esekidura elementuekin eta jasotzeko makineriarekin muntatzeko lanak antolatzea, gainbegiratzea eta egitea.

— Egindako muntaketak berrikustea eta prest jartzea, funtzionamendua egiaztatzea eta gorabeherak konpontzea, bai barrualdean eta bai kanpoaldean.

— Agertokiko langileak koordinatzea: egutegiak, ordutegiak eta zereginak banatzea. Kontratatutako zerbitzuetako langileak koordinatzea (zamalanak, langile teknikoak eta abar).

— Agertokiko inbertsio eta ekipamenduei buruzko txostenak eta proposamenak egitea. Halaber, kultur etxeetan mantentze lan orokorrak egiten laguntzea, bai konponketak egiten eta bai instalazioak hobetzeko aurrekontuak eskatzen, eta erakusketetako muntaketei sostengua ematea.

— Kultur etxeetan aretoko jardueren erregistro grafikoa eta ikus-entzunezkoa egitea, eta jardueren ikus-entzunezko fitxategiak kontrolatzea eta kudeatzea.

— Beste zentro edo zerbitzu batzuei lagatako materiala prestatzea, kontrolatzea eta haren jarraipena egitea.

— Bestalde, agintzen dizkioten zeregin guztiak betetzea, lanpostua eskuratzeko eta betetzeko eskatutako kualifikazioarekin bat datozenak, lehen aipatutakoei kalterik egin gabe.

II ERANSKINA

GAITEGIA

1. Donostia Kultura Enpresa Entitate Publikoaren estatutuak. 2007ko martxoaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
2. 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena. 1 Kapitulua.
3. Donostiako Udalaren langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa. Atariko Titulua; Lehenengo titulua: I. Kapitulua Bosgarren Titulua.
4. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa Atariko titulua II. Titulua.
5. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa I. Kapitulua.
6. 3/2018 Lege Organikoa, datuak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa: I Titulua. Xedapen orokorrak, II. Titulua: Datuak babesteko printzipioak.
7. 10/1982 Legea, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa.
8. Donostia Kultura: Egitura, zentroak et jarduerak.
9. Elektrizitateari eta elektronikari buruzko oinarrizko nozioak. Funtsezko magnitudeak. Ohm-en legea.
10. Argiaren propietateak eta ezaugarriak.
11. Bideo-, audio-, argiztapen- eta indar-kableen identifikazioa, ezaugarriak, aplikazioak eta konexioak.
12. Ikus-entzunezko elementuen eta argiztapenaren identifikazioa, ezaugarriak eta aplikazioak (fokuak, iragazkiak, lanparak, mikrofonoak, proiektagailuak, optikak).
13. Ikus-entzunezko komunikazioko eta argiztapeneko protokoloak.
14. Soinua, bideoa eta argiztapena nahasteko mahaiak, analogikoak zein digitalak.
15. Bideo-seinale eta -bereizmen motak. Bideoa proiektatzeko sistemak.
16. Softwarearen ezagutzak: Autocad, Capte eta Qlab.

— Atender y manipular las consolas y elementos de control de iluminación y sonido durante la función. En los centros culturales, labores de proyección, tanto en espacios de interior como de exterior.

— Organizar, supervisar y realizar el armado de los distintos decorados con los correspondientes elementos de suspensión y la maquinaria de elevación.

— Revisión y puesta a punto de los montajes realizados, verificando el funcionamiento y resolviendo incidencias, tanto en espacios de interior como de exterior.

— Coordinación del personal de escenario: distribución y control de calendarios, horarios y tareas. Coordinación del personal de servicios contratados (carga-descarga, personal técnico, etc.).

— Realizar informes y propuestas sobre inversiones y equipamientos del escenario. Asimismo, en los Centros Culturales colaborar en el mantenimiento general del Centro, tanto en los arreglos como en la solicitud de presupuestos para las mejoras de las instalaciones y apoyar los montajes de las exposiciones.

— En los Centros Culturales realizar el registro gráfico y audiovisual de las actividades de la sala, controlando y gestionando los archivos audiovisuales de las actividades.

— Preparación, seguimiento y control del material cedido a otros centros o servicios.

— Realizar, asimismo, aquellas tareas que se le encomienden, acordes con la cualificación requerida para el acceso y desempeño del puesto, sin perjuicio de las relacionadas anteriormente.

ANEXO II

TEMARIO

1. Estatutos de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura. Boletín Oficial de Gipuzkoa 7 de marzo de 2007.
2. Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores. Capítulo 1.
3. Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal del Ayuntamiento de San Sebastian: Título Preliminar, Título Primero: Capítulo I, Título Quinto.
4. Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres en el País Vasco: Título Preliminar Título II.
5. Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de prevención de riesgos laborales: Capítulo 1.
6. Ley Orgánica 3/2018. de protección de datos y garantías de Derechos digitales: Título I: Disposiciones Generales Título II: Principios de protección de datos.
7. Ley 10/1982 de Normalización del Euskera.
8. Donostia Kultura: Estructura, centros y actividades.
9. Nociones básicas de electricidad y electrónica. Magnitudes fundamentales. Ley de Ohm.
10. Propiedades y características de la luz.
11. Identificación, características, aplicaciones y conexionado de cables de vídeo, audio, iluminación y fuerza.
12. Identificación, características y aplicaciones de elementos audiovisuales e iluminación (focos, filtros, lámparas, micrófonos, proyectores, ópticas...).
13. Protocolos de comunicación audiovisual e iluminación.
14. Mesas de mezcla de sonido, vídeo e iluminación, tanto analógicas como digitales.
15. Tipos de señales y resoluciones de vídeo. Sistemas de proyección de video.
16. Conocimientos de software: Autocad, Capture y Qlab.

EK\CV GAO-I-2024-01193

17. Espazio eszenikoak, zatiak, terminologia.
18. Argiztapen planoak, interpretazioa, muntaia.
19. Soinu-ekipoak. Seinale-prozesadoreak, kutxa akustikoak, potentzia-etapak.
20. Audio-seinaleak bideratzea eta egiaztatzea.
21. Soinua jasotzea. Mikrofonoak. Hari gabeko soinu-sistemak.
22. Sare lokalak. Routerra eta konfigurazioa. Sareko kableatua. IP, OSC helbideak.
23. Bideoa proiektatzeko sistemak.
24. Eszenarako makineria. Karga jasotzeko tresneria: eskuzko hagak, kontrapisuak, motorizatuak.
25. Ikuskizunetan eta ekitaldietan kargak etetea eta igotzea (Rigging). Egiturak eta lantaldeak. Kalkuluak.
26. Ekitaldiak antolatzea: produkzio-fitxak eta muntatzeko eta desmuntatzeko prozesuak.
27. Lantaldeak koordinatzea.
28. Donostia Kulturako kultur etxeen espazio eszenikoen ezaugarri teknikoak.

*Oharra:*

Kontuan hartu behar dira erreferentziako araudian gerora egin daitezkeen aldaketak, deialdi bakoitzeko eskabideak aurkezteko epea amaitu artekoak.

17. Espacios escénicos, partes, terminología.
18. Planos de iluminación, interpretación, montaje.
19. Equipos de sonido. Procesadores de señal, cajas acústicas, etapas de potencia.
20. Enrutado y verificación de señales de audio.
21. Captación de sonido. Micrófonos. Sistemas de sonido inalámbricos.
22. Redes de área local. Router y configuración. Cableado de red. Direcciones IP, OSC.
23. Sistemas de proyección de vídeo.
24. Maquinaria escénica. Equipos de elevación de carga: varas manuales, contrapesadas, motorizadas.
25. Suspensión y elevación de cargas en espectáculos y eventos (Rigging). Estructuras y equipos de trabajo. Cálculos.
26. Organización de eventos: fichas de producción y procesos de montaje y desmontaje.
27. Coordinación de equipos de trabajo.
28. Características técnicas de los espacios escénicos de los centros culturales de Donostia Kultura.

*Nota:*

Deben tenerse en cuenta las modificaciones posteriores que pudieran producirse en la normativa de referencia, hasta el momento de la finalización del plazo de presentación de instancias de cada convocatoria.

EK\CV GAO-I-2024-01193